



## Internet / Intranet teknologian oinarritutako Komunikazio-zerbitzaria

Andoni Sagarna\*


### Komunikazio laster eta merkeak irispidean

Internet-eko zerbitzuak edonori eskueran jartzea da Jalgiren lehenbiziko eginkizuna. Badakizu Internet-eko zerbitzuak erabiltzeko, ordenadorea, telefono--linea eta modema behar dituzula, baina tresna horiek edukitzea ez da aski Internet-en sartu ahal izateko, horretaz gainera Interneteko konexioa eskaintzen dizun hornitzaile bat behar duzu. Hainbat enpresa daude kuota baten truke zerbitzu hori eskaintzen dizutenak. Jalgi horietako bat da, baina ez beste gehienak bezalako, gero emango dizkizudan arrazoiengatik.

Demagun Jalgiko "harpidedun" egiten zarela. Une horretatik aurrera erabiltzaile-izena eta pasahitza izango dituzu, Jalgiko zerbitzariak ezagut zaitzan eta zerbitzu-mota desberdinak erabiltzen utz diezaizun. Zerbitzu hauetako bat erabili nahi duzunean zure ordenadoreak 055 telefonora deituko du eta Infoviaren bidez Jalgiko zerbitzariarekin egingo du konexioa. Horrela Espainiako estatuko

edozein lekutatik ari bazara deia egiten, konexio-kostu berbera izango duzu: 139 pta. orduko, edo gutxiago deia egiten duzun orduaren arabera. Harpidedun izateagatik posta-helbide bat ere izango duzu, beraz posta elektronikoa duen edonori bidal diezaizkiokezu mezuak edo testuez gain

irudiak, soinua eta animazioak dituzten dokumentuak. Dokumentu gehienek minutu bat baino gutxiagoko konexioa eskatuko dute eta hartzailearen posta-kutxara une berean iritsiko dira, are dokumentu berbera munduko dozena bat leku desberdinetara bidali nahi duzunean ere. Honek esan



1. irudia. Bi lankideren arteko elkarrizketa teklatu bidez.



2.irudia. NewScientist zientzi aldizkariaren web gunea.



3. irudia Smithsonian Institution-eko Natur Zientzien Museoko Botanika Saileko web gunea



4. irudia. Jalgiren web gunearen orri nagusian sustatzaileen logotipoak ikus daitezke. Hauetako bakoitza mundu txikietan sartzeko atea da.

nahi du inoiz izan duzun posta-sistemarik merkeena duzula eskutan.

Hori ez da dena, zeren gaur egun erabil ditzakezu "chat" edo teklatu bidezko elkarrizketa-sistemak, lehen aipatutako telefono-tarifa ordainduz, munduko edozein txokotan dagoen norbaitekin harremanetan egoteko. Adibidez, America On Line-ren "Instant messenger" instala dezakezu doan zure makinan, hau egin ahal izateko.

### Mundu guztiko eta era guztietako nahi adina informazio esku-punttan

Interneten dagoen zerbitzurik interesgarrienetako bat World Wide Web delakoa da. Esan daiteke nahi den informazio guztia topa daitekeela bertan. Milaka eta milaka web gune daude zure ordenadorearen bidez ikus ditzakezunak. NewScientist zientzi aldizkariarena eta Smithsonian Institution-eko Natur Zientzien Museoko Botanika Sailekoa dituzue hemen adibide modura.

Jalgik berak ere badu bere web gunea noski,

<http://www.jalgi.com>

helbidea duena hain zuzen ere. Gune horretako orrialde nagusiak Jalgik proiektuaren bultzatzaileak aurkezten dizkigu (ikus 4. irudia):

Klaudio Harluxet Fundazioa, Ikastolen Elkarte, Euskal Kulturgingintza enpresa (Zabaltzen, Elkar, etab.) Euskaldunon Egunkaria eta Elhuyar Kultur Elkarte. Hauetako bakoitzak bere burua aurkezten digu eta bere arloko zerbitzuak eskaintzen dizkigu bertan. Ate horietako bakoitzetik sartuz gero zer aurkituko duzun ulertzeko, lehenbizi Jalgirekin zer nolako harremanak izan ditzakezun agertu behar dizut.

### Jalgirekin izan daitezkeen harreman-motak

Jalgiren harpidedun ez den edonork ikus dezake goian aipatzen zen orri nagusi hori eta ate horie-

tako bakoitzetik sartuko da nahi badu, berarentzat irekiak dauden txokoak ikusteko. Halako batean, ate bat zabaltzen hasi orduko, sistemak erabiltzaile-izena eta pasahitza eskatuko dizkio, ate horren atzean dauden informazio eta zerbitzuak ez direlako edonorentzat, bertan sartzeko baimena dutenentzat baizik.

Jalgiko harpidedun zarela? Zaude ziur kalekoentzat debekatuak dauden ate horietako batzuk zurretat ireki egingo direna. Hemen hasten dira Jalgik beste hornitzaile batzuekiko dituen abantailak. Harpidedun zaren horrek, ez direnek baino informazio gehiago, erosketak egiteko abantaila gehiago, kontsulta zerbitzu aberatsagoak, etab. dituzu. Hori baino abantaila gehiago izan ote ditzakezu? Bai noski. Jalgiko sustatzaile bakoitzak bere kide, bezero, hornitzaile, etab. i gunearen atal batzuetara sartzeko baimena eman go baitie. Horien artean baldin bazaude abantaila gehiago izango dituzu.



\* Jalgiko koordinatzailea

### JALGIREN HARPIDEDUN IZATEKO KUOTAK

Modem bidezko konexioa:  
Interneten denbora-mugarik gabe ibiltzea,  
posta-kutxa elektronikoko bat eta web-orri pertsonaletarako 1 MB:

|                                  |                    |
|----------------------------------|--------------------|
| 1 urte . . . . .                 | 15.000 pta. + BEZa |
| 6 hilabete . . . . .             | 9.000 pta. + BEZa  |
| 3 hilabete . . . . .             | 6.000 pta. + BEZa  |
| Posta-kutxa gehigarria . . . . . | 5.000 pta. + BEZa  |

RDSI bidezko konexioa:  
Interneten denbora-mugarik gabe ibiltzea,  
3 posta-kutxa elektronikoko eta web-orri pertsonaletarako 1 MB:

|                  |                    |
|------------------|--------------------|
| 1 urte . . . . . | 30.000 pta. + BEZa |
|------------------|--------------------|